

Gutunak

Eñauten txapela

Puertollanoko igoyeraren ospakizunak ez ditut oso gogoan, artean, ume moko bat baino ez nintzelako. Ez bariante, ez A-8rik eta zertarako abiadura handiko trenik. Realeko autobusa –sapairik gabekoa oraindik asmatzeko– Aldapetan behera sartu omen zen Donostia-ra, nonbait garai haietan hirira sarbide nagusietako bat. Hantxe bizi izan nuen txuri-urдинen lehen festa handia.

Bigarrena, Xixonen irabazitako titulu zoragarri hura. Zamorak azken minutuan sarturikogol errepikaezina. Lokatzarteko futbol zoragarria. Iñaxio Kortabarriari sarritan entzun diot egun hartako gogoeta egiterakoan, herri herri baserrietatik jendea nola irteten zen errepidera autobusaren etorrira agurtzera. Horrek hunkitu zuela gehien, herri osoa pozak zoratzen zegoela ikustea, Realak irabazitako Liga medio.

Eta igandean, Anoetan, Eñaut Zubikaraik bere aitonaen txapela jantzi zuenean, herriminetan hunkitu, Realak herrikoa behar duela izan otu zitzaidan, herri honek aurrera egiteko betidanik erakutsi duen grina eta esfortzuaren isla. Gertukoa. Euskalduna.

Zubikaraik bere aitonaen txapela jantzi zuenean, Realak herrikoa behar duela izan otu zitzaidan

Nolaez hunkitu, horrelako momentutan falta direnekin akordatzeara –aita, lagunak, Sarriegi...–, espetxeko hormak zulatuko zituzten Labakaren hitzekin, kapitainaren umiltasunarekin, *Mon-drakoaren* rock zaletasunarekin, Ansotegiren jokoarekin, *Prietitia*...

Izarren konstelazio batera iritsi omen gara, baina ez gaitzen larritu; Martinez, Ormaetxea, Kortabarria, Gorritz, Gajate... hauek ere makina bat izar izan zuten parean Atotxa zaharrean, eta asko ta asko itzaliak, amatatuta. Beraz, extralurtar pare bat ekarri –behar izanez gero, Antiguako Amari erreza– eta etxekoak, Eñaut bezala, txapela jantzi eta eman egurre!!

Antiguotik, aupa Real!!

Martin Agirre.

Antigua.

■ **Zure iritzia berri emateko,** iritzia@irutxulokohitza.info eta Katalina Eleizegi 36 behekoa helbideak edo 943 44 65 32 faxa erabili, izena adierazita; HITZAK mozteko eskubidea du.

■ IRUTXULOKO HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Elkarriketa eta herritarren parte hartzea oinarri hartuta, bakearen alde egiteko elkartzen hasi zen herritar talde anitza orain hiru urte. Bulebarrean dute hitzordua hilero, lehen eta hirugarren ostegunean.

Zero gunearen isileko aldarria



Egin bideak bakeari ekimeneko partaideak, kiosko aurrean egindako borobilean. MIKEL GOÑI

MAITANE ALDANONDO

Hiru urte daramatzate hileko lehen eta hirugarren ostegunean, Bulebarreko kioskoaren aurrealdean biltzen. Aukiak borobilean jarri eta bertan isilik egoten dira *Egin bideak* bakeari ekimen aurrera daramaten hiritarrek, ordu laurden batez. 2007ko maiatzetik errepikatu duten ekin-tza sinboliko honen bidez, beraien ustez, politikariek egin beharko luketena irudikatu nahi dute. Sorrerako taldea mantentzen bada ere, berritzen joan eta, gutxika, jende gehiago batzen doa hitzordu hone-tara.

Aulki hauen inguruan ohikoa da Sabino Ormazabal kazetaria. Parte Zaharreko bizilaguna ekimenaren sustatzaileetako bat da, eta gogoan du bere sorburua. «Afari baten inguruan sortu zen. Sigla desberdina-katzean izanda ere, pertsona be-zala mahai hartara deituak izan gi-nen. Hor sortu zen egitasmoa». 2007ko maiatza zen eta eta era-kunde nahiz ekimen desberdine-tan zebiltzan beste lagunetako bat Joxe Mari Iturriotz zen. «Elkarre-kin zer bait egiteko asmoz bildu gi-nen. Gure pentsaerak nahiko ani-tzak direnez, gutxiengo batzuetan ados jarri eta adierazpen orri bat adostu genuen».

Desberdintasunak desberdinta-sun, ekimen bateratua egin behar zutela argi zuten. Ekimen mota au-keratzean, Uhartan Artamuga-riak taldeak aurrera daramana oi-narriztat hartu zuten. Nafarre-k «bake prozesua eta partaidetza-k demokrazia sustatzeko ekimen ar-tistikoak» bezala definitzen dute be-raien jarduna eta Oteizaren pen-tsamendutik hartu zuten aulkiekin espazio zirkularra sortzeko ideia.

«Erdikoa hustu eta ingurukoak du garrantzia», azaldu du Ormazabal-ek. Hori horrela, borobilean eser-tzea elkarriketaren irudikapen sinbolikoa ere badela gehitu du Iturriotzek. Izan ere, ekimen bate-ratuaren helburu nagusia «Euskal Herriko arazoa konpontzeko ar-dura gehien dutenak, hau da, poli-tikariak eser daitezela, hitz egin dezatela eta, elkarriketaren bi-dez, daukagun arazoa konpon de-zatela da».

Bulebarra, bilgune

Sinbolikotasunarekin jarraituz, bi-lera tokia –zero gunea– ere ez zu-ten ausaz aukeratu. «Zero gunea deitzen diogu sufrimendua eta al-datze gogoa sinbolizatzen di-tuelako. Bulebarra oso espazio in-dartsua da eta hor erdian kokatu nahi dugu gure eskaera», argitu du Ormazabal-ek. Udalak Gipuzkoa plazara lekualdatzea iradoki ba-

zien ere, donostiarraren hitzetan, «Bulebarra hiriko topagunea da. Ekitaldiei eta protestei ikusgarri-tasuna hor ematen zaie».

«Isiltasuna gure garrasia izatea nahiko genuke», dio ekimenaren sustatzaile Joxe Mari Iturriotzek

Oinezko askoren igarobide izate-ak ere askoz errazten du Maria Pie-dad Calvoren jarduna. Hendaiarra arduratu ohi da, beste neska bate-kin batera, ekimenak iraun artean, ingurutik dabilzanegi egitasmoaren berri emateaz. Calvo ez da inongo talde politikotako kide, baina Gi-puzkoako Erizaintza Eskolako te-rapia naturaletan lanean aritu da «bakearen arloan, baina beste modubatean». Senarrarekin batera joan zen lehen bileretara eta ideia ona iruditut zitzaien elkarlanean

aritzea. «Ideologia eta askotariko pentsamoldea duten pertsonak gara, baina denok bakea lortu nahi dugu, norberak bere ikuspuntutik bada ere», zehaztu du Calvok.

Aurrera egitea, erronka

Egitekoa luzerako zela bazekiten ere, Iturriotzek azken hiru urteak errazak izan ez direla aitortu du. «74 bat aldiz han elkartzea, aukiak eraman eta ekarri, jarri eta kendu... luzea egin zaigu. Baina baikor gaude, eutsi diogulako. Eguraldi on eta txarrarekin, euriarekin, hotzarekin, jende gehiago edo gutxiago bil-tzeko gai izan gara». Oro har, 55-60 bat lagun elkartu ohi dira eta, Itu-riortzen hitzetan, «isiltasuna gure garrasia izatea nahiko genuke».

Gatazkaren konponbidea er-di-estea beren esku bakarrik ez da goela badakite, eta Calvok inurri lana bezala ikusten du beren ekar-pena. «Oinarri gisa 30 urtez lanean aritu diren Madres de la Plaza de Mayo hartzen ditut. Badakit hau ez dela gaur edo bihar lortuko, ba-na gutxika borobila handitzen joan behar gara. Herritarrek masi-boki biltzen baditugu, norbaitek zer bait egin beharko du». Beste auzoetako herritara ekimenazabal-tzea nahiko balute ere, etorkizu-nari begira erronka zailena, ordea, mantentzea dute. Halere, «ahal dugun bitartean iraungo dugu, el-karriketa eskatuko dugu», gogo-ratu du Iturriotzek.

Azken hiru urteetako ibilbidea positiboa izan bada ere, kexa txiki bat ere badu Calvok. Hendaiarrak ostegunero elkartzen ditu furgone-tan, borobila osatzeko erabiltzen di-tuzten aukiak. Hainbatetan eskatu dio Udalari kiosko azpiko gunea horiek gordetzeko, «baina ez digu jaramonik egiten. Bi har, berriore, Parte Zaharreraino ekarri beharko ditueserlekuak. Hilabeteko hiruga-rren osteguna izanik, 20:00etan, borobila osatu eta isilik, bakeari bi-deak egiteko eskatuko baitute».

Elkarbitzitzarako ereduak

M.A.

Isiltasuna nagusi izaten bada ere, hainbatetan ekimen bereziak egi-ten dituzte. Graffitiak, dantza, txal-laparta, poesia... Itziar Zamora, Pako Aristi, Mikel Markez edota Amaia Zubiria bezalako kultur munduko izenez gain, sindikatu-eko kideak, kazetariak, kirolariak, zinegotziak... ere batu izan dira bo-robilera. Eskaera bakarra egiten diete: «Espazio hori gurekin kon-partitzeko eskatzen diegu, isilean edo mezu bat aurkeztuz, kantu bat konpartituz».

Joan den osteguna berezia izan



Aaron Barnea eta Ali Abu Awwad. M.G.

zen, lehen aldiz hitzordua ezohiko datan egin baitzuten. Ekainaren lehen astean elkartu ordez, bigarrenean egin zuten, gonbidatuak medio. Oraingoa, beste gatazka batzuetako eragileak izan zituzten: Pat Magee irlandarra, Ali Abu Awwad palestinarra eta Aaron Barnea israeldarra. «Horrelako adibideak, bereziak badira ere, eredu garriak diraguretzat», argitu du Sabino Ormazabal-ek. Izan ere, «elkarbitziza posible dela erakus-ten dute beren esperientziak za-balduz. Hauek ikusita, pistak ema-ten dizkigute».